

Rebeka Ubera, Iosu Murgia, Iñaki Aldekoa, Ainhoa Beola

- Hasieratik jada hanka motz sortzen den ekimena da. Hala irizten diogu Terrorismoaren Biktimen Zuzendaritzak Aitortzatik “Terrorismoaren biktimen” Memoriara jauzia egin behar dela proposatzen duenean, biktima guztien biktimen errekonozimendua egin gabe dago-eta. Motibazio politikoa eragindako biktimen gaineko txostena oraindik Legebiltzarrean aurkeztu gabe dagoela gogoratu behar dugu.

- Hasieratik, hiru alderdiren artean adostu zen ekimena, erakunde arteko akordioaren aitzakian, hau da, Eusko Jaurlaritzaren, Legebiltzarraren, Batzar Nagusien eta Eudelen artekoa. PP, PSE eta EAJren artea adostu ondoren, bozeramaileen batzordeetara eraman zuten, han berretsia izan zedin. Orduan ere salatu genuen era horretako adierazpen batek ez zukeela aurrera egingo plenoko eztabaida baten, bai eta Memoriaren Egunak ikuspegi zabal eta inklusibotik abiatuta jaio behar duela. Horregatik abstenitu zen Aralar.

- Orain, gaizki deituriko memoriaren eguna definitzen duen testua egiteko orduan ere, akats berberak errepikatu eta areagotu dituzte.

- Alde batetik erabili dituzten formak daude:

- Hiru alderdiren artean adostu dute testua, erakunde arteko akordio baten aitzakian, eta hain justu erakundeetako presidentziak alderdi horien esku daudelako. Baina, ahaztu egin dute, erakunde arteko adostasun batera gehitzeko, lehenengo eta behin erakundeek eurek Adierazpen instituzional eran (aho batez) edo gehiengoz adierazi behar dutela horixe. Aldiz, gaurko egunez, Legebiltzarrean ez da horrelako adierazpenik onartu eta, beraz, gaur gaurkoz ezin da erakunde arteko akordioaz hitz egin, are gutxiago, erakunde arteko Adierazpenez. Baina, gainera, testua bera ez zaigulako eman ezta proposamenak egiteko ere.

- Bizkaiko Batzar Nagusietan ere ez da bozkatu eta Araba eta Gipuzkoako batzar nagusietan, berriz, Bozeramaileen Batzordeek hartu dute erabakia. Udalei dagokienez, EUDELEk testua sinatu izana, ez du inongo kasutan adierazten udal guztien izenean ari denik, eta beraz, ezinezkoa da esatea herri honetako erakunde guztien arteko akordio batez ari garenik

- Baina, are larriagoa iruditzen zaigu:

- 1/ Testuak herri honetako biktimen alde bateko ikuspegia jasotzen du, erabat onartezina iruditzen zaigu hori, memoriaren egunak izan beharko lukeenaren kontra doa, hau da, etorkizunerako oinarri konpartituak ezartzeko balioko lukeen gertatutakoaren gaineko ikuspegi kritikoa egitearen kontra. Parteetako bat ikuspegi kritikoa egitetik libratzen du eta biktimatako batzuk are gehiago biktimizatzen ditu, ahanzturaren biktima bihurtuz berriz ere.

- 2/ Ez gaude Memoriaren Egunaren aurrean. Joko partidista eta alde bakarreko baten aurrean gaude, bidegabeki biktimak iraintzen dituena. Horregatik exijitzen dugu ikuspegi inklusibo batetik abiatzea frankismoaren biktimei eta estatuak eragindako giza eskubideen urraketa larrien biktimek ere badaukaten memoriarako eskubidea aitortzeko. Bihar ere horixe eskatuko dugu Legebiltzarreko Bozeramaileen Batzordean, Legebiltzarrak testua bere egin dezan saiatuko direla jakin arren,

Beste alde batetik, iragarri nahi dugu ARALARrek Batzar Nagusietan, Udaletan eta Eusko Legebiltzarrean Legez Besteko proposamena aurkeztuko duela Memoriaren Egunak biktima guztiak gogora ditzan: frankismoaren biktimak, ETAk eta beste talde armatuek eragindako biktimak eta estatuak eragindako giza eskubideen urraketa larrien biktimak. Ukatu zaigun eztabaida eraman nahi dugu euskal gizartearen ordezkariak dagoen legebiltzar eta batzar nagusietan udaletara. Eztabaida publikoa eta instituzionala izan dadila nahi dugu eta ez, gertatu den bezala, gero komunikabideetara eraman den eta aurretik ezkutuan hiru alderdiren artean egin den akordio baten ondorio.